

Donostian, diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Oleaga, Irigaray, Mitxelena, Lafitte, Eppherre, Villasante, Lekuona, Arrue, euskaltzaiñak, San Martin, Alvarez Emparanza, Zugasti, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Etxaide jaunak ezin etorria adieraz dau.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu.

“Caja de Ahorros Vizcaina”-k bialdu dauan idazki bat irakurri da. Aurreko bazarrean aipatu zan novela-sariaientzat zortzi milla peseta emotea erabagi dabela diño. Oiñarriak bialdu bear jakiez ontzat artu daiezan. Epea 1960-VII-20-rako imini bedi.

Eibarko euskalzaleen batzar eta jaien barri emon da. Eskerrak eta zorionak emon bekioz Juan San Martin jaunari eta Eibarko laguntzailleeri. Eibarko emisoreak bialdutako idazki bat irakurri da. Bertan esaten da gipuzkoako bertsolarien sariketearen barri emon dabela eta baita sariketa osoa be plazan egin zan legez.

Arrua urgazleak bialduriko idazki bat irakurri da. “Resurrección M.^a de Azkue Mintegia” izenaz dabillan euskaltzale aldra baten asmoak azaltzen ditu bertan, euskerea jauspidetik atara ta Euskalerrian zear euskerearenganako zaletasuna zabalteko gogoz. Poz pozik entzun dira asmook. Baiña gai astuna dan ezkerro astiro-astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko.

Erkiaga urgazleak, gizatalde baten izenean eskatzen dau Euskaltzaindiaren menpean eta Bilbon Euskaltzaindiaren etxean euskal-iztunde ikastaroa sortu daitela, batez bere euskal-teatroz ekiteko. Orretarako urgazle edo euskaltzain batzuk izentau leitekezala zuzendaritza eroateko. Eta aspaldion urtero Bilbon egiten dan Euskaltzaindiaren jaia 1960-garren urtebarri-asieran talde orrek bere gain artuko leukeala. Jai orren egitamu-gogoia zeaztuten dau, arazo au agerturik bialdu dauan idazkian. Atsegiñez ikusi da guztia.

Aresti urgazleak be eskatzen dau euskaltzaindiaren menpean eta Bilbon Euskaltzaindiaren etxean sortu daitela euskal-teatro talde bat deklamaziño-eskola baten gisara, eta diño orretarako teatro-jokolari batzukaz berba egin dauala. Atsegiñez ikusi da au be.

Alkartu beitez bata ta bestea, eta Erkiaga, Aresti eta Irigoyen urgazleak izentan dira alkar artu daien eta aurrera eroan daiezan asmook. Oleaga euskaltzaiñaren eskuetan itxiten da jaiaren kontua eta zuzendaritza nagusia.

Arrue-k diño Gipuzkoako Diputaziñoak ogeitabost milla peseta eskeiñi dituala iztegi lanetarako, eta eskerrak emon jakozala.

Oleaga-k diño orri batzuk egin behar litzakezala euskaltzaleeri zuzendurik iztegi-lauerarako dira eske. Asmo au aintzakotzat artu da.

San Martin-ek daño ia Eiberren dirua eskatu leien euskaltzaindiaren laguntzailleak legez egin gure dituezan lanetarako. Egin bedi.

Aurtengo **Euskera** agertu da. Zorionak emon bekioz beronen atontzaille Irigoyen jaunari.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.